

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

346n. zenbakia

2009 otsaila



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 94 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 6'an

41.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de larreategi, 14-2 - Teléfono 94 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 6 de octubre

Urteroko Batzar Nagusia

Asamblea General Anual

Martiaren 26 egunean urteroko
Batzar Nagusia egingo dogu
Lenengo deia: 7' etan eta
Bigarren deia 7,30 etan

GAIAK

Aurkespena : Zuzendariak
Urteko kontuak : Diruzaiñak
Urteko ekintzak : Zuzendariak
Batzordekide barriak, ba' legoz
Erreguak eta eskariak

ZUZENDARIAK

El 26 de Marzo celebrará la Asociación
EUSKERAZALEAK su Asamblea General
anual

Primera convocatoria 7,00 tarde
Segunda convocatoria 7,30 tarde

ORDEN DEL DIA:

Presentación : El Presidente
Cuentas del 2008 : La Tesorera
Actividades del 2008 : El Presidente
Nuevos miembros de la Junta si hubiere
Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeita bost euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

“Agur !!” “San Sebastian eta Zubillaga´tar Jose Mari” (Latxaga)

Latxaga eta Olazar´tar Martin nire ardurean bat eginda egon ziran ezkerro, ez eben balio ezerren aitzakirik, nik Euskeraz idazten enekiala ezer-be esaten neutsienean.

Batak: “Konturatu-adi, Euskeraz idazten dozun itz-bakotzarekin, Euskalerrriaren etorkizunerako, aurrerakuntza aundia dala !”. Eta Martiñeri be bardin esan da, onek: “Ori konponduko dogu, zuk idatzi bai ! eta nik zuzenduta “ZER” aldizkarian argitaratuko doguz”.



1.987n. urtea ezkerro

EUSKERAZAINTZA´ren sortzaillea ta kidekoa izan bazan be, nik 1.992´an ezagutu neban Latxaga, Aita Santi Onaindia´gaz batera, Donostia´n egin zan EUSKERAZAINTZA´ren batzar eta itzaldi batera joanda.

Aita Santi, 1.996´an Otsaila´ren 11´n il zanetik aurrera eta Deba´ko batzarretan aurkitzen giñanean, beti alegintzen zan nik ararte egiten nebazan gaztelerazko idaz-lanak alboratu negizan eta Euskeraz asi.

Ortik aurrera, aukera ederrak euki nebazan LATXAGA sakontasunean ezagutzeko eta adiskidetasunean mamitzeko (intimar en la amistad).

Berak, ulergaitz´eko (complicado) gaixotasuna euki arren, ez zan sekula kikildu edo bildurti agertu, ausartasun andiz beti aurrera egin eban guztiz nekatu arte.

Nafarroa´ren Euskerazko arazoa izan zan bere buruko-min aundienetariko bat eta nigaz beintzat Lizarra´n euki eben etxean irten-tokitik asi-ta, eten barik ibili giñan: Zangotza eta Irunberriko ikastoletatik, Ueska, Jaka, Lodosa, Andosilla, Los-Arkos, Yebra de Basa (Aragoi), Martzilla, Zaragaztelu (Carcastillo), Agilar, Aralar´ko San Migel, Montjardin, Gares, Lizarra, Iruña eta abar, benetako azter-lanean arakutzen.

Toki guztietan euki ebazan ezagunak eta ainbat galdera egiten eutsoen, gero bere liburuetan eta Diario de Navarra´n idaz-lanak argitaratzeko.

Nafarroa, 1.521´an guztiz menderatuta geratu zan arrezkerotik, beti egon da menperatzaille edo-ta Euskal-usaiña daukan gauza guztien aurkakoak diranen kontrolpean.

Berak niri, jarrera ori egiztatzeko eta Nafarroan ata-guzti Euskereak indarra eta

asko irakurten zala erakutsi naian, gertaldi (anécdota) bigaz ziurpetu eustan:

Bata: Lizarra'ra joateko, sarri, Lizarraga'ko mendiketatik joaten giñalako eta ura edaten iturri bakar ta ederra dagon lekuan geratuta, beti aurkintzen gintzazan dagozan zakarrontzi biekaz gaiñezka dirala eta zabor beterik iturri ingurua. Argazkiak atara eta idaz-lan baten Diario de Navarra'n argituta, zakarrontzi areik eta iturri ingurua, sekula ez dira loi agertu gaurko egunerarte.

Bestea: Monjardin'era joanda, an dagoan bas-eleiza eta daukan edestia niri erakutsi naian, zain egoan eta Euskeraz ezertxo-be ezekien andra arduradunari baimena eskatuta, Jose Mari'k niri, daukan edestiaren irakaskizun ederra emonda gero, berak Lizarran euken etxera joan giñan bazkaltzera, eta nik bazkaria gertuten ibili nintzan bitartean, bera idazten asi zan, bere eritiz zer egin bear zan, goiko mendiaren gailurrian geratzen diran edestian garrantzi andia daukien gazteluko ormazarren ondakiñakin, baselizan egin bear ziran konponketak aurrerantzean be edertasun guztiagaz iraun dagian eta noren ardurapean egon bear zanagaz, Diario de Navarra'n argitaratzeko.

Andik illa bi inguru joan gintzazan barriro eta giltza andra zaiñari eskatzen joan gintzazanean, berak auxe esan eutson. Oiga señor cura: "Nosotros somos quien! para cuidar de esto".

Nondik jakin eban andra arek...., Jose Mari zala, Euskeraz idatzi eban idaz-lan ura ?.

Bazkaltzen eta egunaren gertakizunak adierazten gabizela, Jose Mari'k esan eustan: "Ikusten dok !. Ori da guk egin bear doguna. Napar-abertzaleak etxeko gauzakin arduratu daitezcan

eta Nortasunezko askatasunaren bideak argituz, mendeko kontrolpetik urten dagian". (Ainbat-dagoz, oneik baiño askoz gogorragoak diranak)

Bere bigarren guraririk biziena Errioxa Euskalduntzea izan zan, Kalagorri, Ojakastro, Logroño'n Laminiturriko taldearekin, Barea'tik eta abar, nigaz ainbeste ibilita. Beti esaten eban Errioxa Euskal usaiñ-osoak daukala.

Ostera baten, Logroño'ko ikastetxe-Nagusira joan giñan, Laminiturriko taldearen Perujo'tar Jose Mari eta Martinez de Kubero'tar Martin'egaz alkar-izketa bat eukiteko.

Gazte auek, euren Euskal-ardura andian ainbeste galdetu, edestian arakatu eta euren lur-inguruak aurrez-aurre zutik begira ta azterkatu ondoren, guri, galde-ziur bi-oneik aurkeztu euskuezan.

Lenengoa: "Eurak ez zirala Errioxa'tarrak, Naparrak baizik". Eta bigarrena: "Euren lurraldeko toki-izen edo deitura guztia Euskerazkoa zalako, nai-ta nai-ez arbasoen senidetasun eta sendimen etorkizunetik eurak Euskaldunak zirala eta Logroño'ko Ikastetxe-Nagusian bederatzi-kide osotzen eben Laminiturri taldearen asmoa, Euskeraz ikastea zala gero zabaltzeko, politika'ko arloetan sartu-gabe".

Jose Mari'k (Latxaga) niri: "Ikusten dok...., EUSKALERRIA'ren semeak zelako lana daukagun gure aurrean Euskal-Nortasuna berrezkuratzeko ?".

Irakastaldi ederrak euki nebazan Jose Mari bidez eta benetan eskertu neutsezan bizi izan bitartean. Baiña a-ta guzti, Euskalerrria bezela, zor andikoa naz berarekin eta bere bidez EUSKALERRIA'gaz zetan ezanik-gabe.



JAKINGARRIAK:

San Sebastian eta Zubillaga'tar Jose Mari (LATXAGA), 1.933'an Orrilla'ren (Maiatza) 21'ean Donostia'ko Aldakonea'n dagoan "LATXAGA" baserrian jaio zan. (Ortik datorko izen ordea).

Lenengo ikasketak Donostia'n Josulagunaren San Ignazio ikastetxean egin ebazan eta 1.949n. urtean batxillerra amaitu ebanean, 17 urtekin Gasteiz'ko Apaiz-gaitegira (seminario) joan zan eta an egon zan 1.955n. urtera arte. Andik, Paris'en Issy Les Molinaux'en dagoan Saint Sulpice apaizgaitegira joan zan ikasketak jarraitzeko.



1.958'an Paris'eko Notre Dame'n egin zan abade.

Mon Martre'ko eleizan, San Inazio ta San Frazizko'k, JESUS'eri eskeiñ-itzak (votos) egin ebezan otoiz-tokian (capilla) emon eban bere lenengo Meza.

Zortzi egun beranduago, Donostia'ko San Inazio parrokian emon eban Meza Tamayo'tar Alfredo Josulaguna sermolarari zala eta onek Euskerarik ezekian lez, gabeko ordu biak arte egon ziran, esan bearrak Euskeraz egokitzeke.

Paris'eko Saint Seberin parrokian (liturgia arloan arreta andikoa dana) laguntza-lana egiten ebala, Goi-Maillako ikasketak egin ebazan eta Teologia'ko Dotoretza egiteko aleman-izkuntza jakin bear ebalako, Alemania'ko Freiburg'eko koloni batera

joan zan aolku-emaille (monitor) eta aleman ikasturte bat egiten egoala bereala gaisotu zan 40º sukar eta 140 kopuruzko jakildurarekin (sedimentación), iñork ez ebana jakin zerenik izango zana.

Alemania'ko Freiburg'en dagoan Zahan-Kiefer-Klinik'era eroan eban.

An, goiko masailaren kutsadura gaitza igarri eutsen eta sei ebaketa egin ondoren, Euskalerrira, Donostia'ko etxera biurtu zan, ebaketaren zauri orreik orbaintzeko (cicatrizar) eta Freiburg'eko gaisotegira osterabe joan bear izan eban, zazpigarreneko ebakuntzan, masaillean plastikoz'ko protesi-bat ipini dagion.

Donostia'n Anoetan dagon ume-ezindua- ren (niños lisiados) San Juan de Dios gaxo-etxera joan zan, lau urtetan auzuneko erretorea izan-da.

Ondorengo bost urtetan, OREXA'ko abade arduradun lez egonda, baserrietako nekazariai, ereiteko lurrak antolatu eutsezan, landara-motak lur-egokienetan erain dagiezan, fruitu ugari ta ederragoak artzeko.

Bearrezkoa zan argi-indarra be eroan eutsen eta bere abadetzazko artzain-jarduera egiten eban bitartean, emen idatzi ebazan liburu asko. Adibidez: "Euskal Arrobia, Aralar'ko San Migel, Jaka Oiñez, Kukula'ko Donemilian (San Millan de la Cogolla), Oresa'ko Etxaguntza" (El Mayorazgo de Oreja) eta abar.

Beren ostetik, ez zan abaderik joan OREXA'ra.

1.972'an, Paris'era joan zan, Institutuko Katoliko'n Teolojia (1.976) ta Goi-Maillako Eskolan Giza-Iztia'ren (Antrpologia) (1.979) Irakasle-Mail edo dotoretzak amaitzeko, eta JAUNGOIKO ta GIZA arloetan mixutasuna euki eban lez, beste biekaz osotzeko Izkel-Izkuntzaren (Lingüística) gabetasunean aurkintzen zan, eta lortu eban Mauricio Mohlo'rekin berba egitea Izkel-Izkuntza bideratzeko, 1.983'an Sorbona'ko Ikatetxe-Nagusian egin ebana.

Emen esan bear da, jakintsuen aukeran egon zan iru illabeteko Ingeles-ikastaro bat egin eta ikastea lortu ebala.

Mauricio Mohlo ele-jakitun aipatuaren laguntzagaz Laterri-Batuetara joan zan, eta parroki batzuetan egonda gero,

Nueva Yor'en, Manhattan'eko Notre-Dame eleizara joan zan laguntzaille lez, guztiz amalau urte eginda.

Laterri-Batuetan, España-giroko arduradun izan zan eta aukera izan eban Giza-Izti (antropologia) eta Teologo-lez lanak egiteko.

Mexiko'ko Juarez Uria'n, mixiolari-lana egin eban eta bere Donosti'ra biurtu bear izan eban osasunaren arazoak zirala-ta A-ta guzti Euskera'ren alde idazten eta lanean jarraitu eban eten gabe.

Izkuntz ezberdiñetan idatzi ebazan liburuak -ez dira itzulpenak, berak idatzitako idazki jatorrak baiño-, (batez be Euskeraz, frantzeraz, gazteleraz eta englanderaz idatzi dau). Baiña Yor Barri'n egoala "kop-to"en izkuntza be ikasi bear izan eban,

izkuntza orretan bakarrik idatzita egoan Maria Magdalena deunaren bizitzea itzuli nai izan ebalako.

Berak idatzitako liburuak, bera egon dan lekuetako Ikastetxe Nagusi batzutan dagoz banatuta (Frantzia'n, Laterri Batuetan, Mexiko'n, Salamanka'n eta abar).

Norberaren eritxia agertzeko, sasoi ona ez zan aldi baten eta berak apaiz-ikastaroan euki ebazan arazoakaz kezkatuta egoalako, idazpuru au daroan liburuak idatzi eban: "Seminarioetan eziketa-lana egiteko bideak (1.964)".

Egin ebazan goi-maillako gauza guzti oneik ikusita gero, iñork ezilei esan, adimendu andi baten jabea ez zala izan.



EUSKERAZ ARGITARATU DAUZAN LANEN ARTEAN ONEIK DIRA GARRANTZITSUENAK:

- Aralarko San Migel (1.973)
- Naparroa Euskal Arrobia (1.973). Maurizio Mohlo'k liburu au irakurri ondoren, tresna biurtuko zan, Jose Mari'k, Sorbona'n izkel-jakintzazko (lingüística) ikasgaian asteko.
- Errioxako San Millan (1.974)
- Oresa Abenda (Etnogragia) aldetik (1.975)
- Jaka'ra Oiñez Naparroan Zear (1.976)
- Arkaitzetako Bisigotiko Baselisak Araba'n (1.976). Euskeraz, Gazteleraz eta Frantzezez argitaratuta dagoena.
- Euskalerriko Sinodua (Eleiz-Batzarra) (1.984)
- Euskal Sena (1.999) liburuan, gure erriaren izaerea aztertzen alegintzen da, eta orretarako, bide bi artzen dauz. Lenengoa: aldizkarietan, liburuetan eta abar agertu diranen bidea. Eta bigarrena: Donostia'n, erritarren agotik batu ebezanak.
- 1.960n. urte-inguruan asi eta gaur arte Euskeraz argitaratu dauzanak, 400 idaz-lan dira (Diaro de Navarra'n, -emen laguntzaille izan zan 1.971n. urtean asita euskerazko orri-an, 2.002n. urtera arte), eta beste aldizkari Euskaldun batzutan, esaterako Zeruko Argia, El Diario Vasco, Goiz Argi, Zer, Euskerazaintza'ren aldizkarian eta abar.



Ikusten dan lez, bizitza JAUNGOIKOA eta EUSKALERRIA'ri benetan eskaiñi dautson eta txapela kendu bear dan gizon baten aurrean gagoz, benetako maitasunean euki dabezelako biak. Batari, ziñ-eskeiñita eta besteari bere biotz osoa emonda JAINKOA'ren LEGE-bidez.

Bere abadetzazko ardura, azkeneko ordurarte zaindu eban. Bagilla'ren (Ekainilla) 28'an, Zornotzan dagoan Larrea'ko Karmeldar lekaidetxean, Euskerazaintza'ren batzarra egin ondoren eta eleizan bere berrogeitamar urte apaiz-lez JAINKOA'ri eskertzeko Martin'ek emon eban Meza Santuan, nai-ta ezinezko egoera larrian egon, an euki gendu meza-laguntzaille lez jantzita.

An egon ziran be, nekearen errukirik-gabe, bere bizitzan ainbeste lagundu dautsoen arreba biak Maritxu ta Isabel.

Eta Euskereai buruz, Euskera-zaintza'ren urrengo aldizkariaren izango dan idazlanak antolatzen egoala, 2.008'an Abendua'ren bost'ean, arratsaldeko ordu-biak zirala, il jakun.

Ondore, Zorroaga'ko tanatoriora eroan eben eta an egon zan, ainbeste lagun eta ezagun ikusi dagian, Lizarra'n berak erosita euki eben arrillobian 2.008'ko Abendua'ren 8'an goizeko amaiketari illobiratu arte.

Bere obiratzeko apaiz-otoitzak, Elezgarai ta Elizondo'tar Imanol Donostia'ko Gotzaiña'ren ordezkioak egin ebazan eta bertso onegaz agurtu eban:

Apaiz jakintsua ta
Eleiz maitalea,
Euskal kultura eta
Euskera zalea.
Ebanjelio bizitzan
Maisu-ikaslea,
Munduan zear erein
Fedearen alea,
Aita-etxean izan,
Bizitza ohea.

2.008'An abendua'ren 8'an

Eleizkizun eder bi egin eutsoezan JAINKOA'ri beren arimagaitik eskatuz, bata: 2.008'an Abendua'ren 12'an Donosti'ko Artzain-Onaren Eleiz-Nagusian Uriarte'tar Juan Mari Gotzaiak meza emon ebana. Eta bestea: 2.008'an Abendua'ren 15'ean Jose Mari'k maitasun aundian euki eban Estibalitz'eko Andra Mari lekaidetxean.

Zer geiago esan leike, Euskal apaiz-gizon ospagarri onen gaitik ?. Asko, eta geroago agertuko diranak zalantzarik gabe. Baiña batez-be:

**Euskalerriak, zor andiak daukazela bere
apaiz- seme abertzaleakaz, eta batez-be
San Sebastian ta Zubillaga´tar Jose mari
“Latxaga”rekin.**

–“Egun andirarte” –

Atutxa´Tar Paul
Zornotzan 2.009´an Urtarrilla´ren 13´an





Sarasate biolinista (1844-1908)

Oraintxe elduko bazina Iruñeko Sarasate pasealekura, arriturik geldituko zinake antxe kokatuta dauden bibolinen irudiak ikusterakoan. Bibolin auen agertzea leiaketa baten ondoria izan da, Iruñeko udalak antolatutakoa, ain zuzen. Sarasate biolinista arrigarria zenaren omenez antolatu dute ikuskizun hau, aurtengoan eun urte betetzen baitira ura il zenetik. Bibolinek kolore urdiñetan margoturik daude, bertze irudi batzuekin apainduta gainera.

Sarasate biolinista Iruñeko San Nikolas karrikan sortu zen, 1844ean. Bere aita, Miguel Sarasate Juanena, eta ama, Francisca Javiera Nabaskues Oatxarena ziren baina Pablo Sarasate Biarritzen il zen 1908. urtean, irailaren 20an.

Garaikoek olaxe izendatu zuten; “gizon txikia, argala, irudi erromantikoa, aurpegi zurixokoa, kalpar kizkur eta beltzarana, begiak kolore berekoak ...” auek denak orduko emakume eleganteak bereganatzen lagundu zioten, eta orien atzetik aristokratak”.

Aren bizimodua munduan zear bibolina jotzea izan zen, baina urtero bueltatzen zen bere erri maitera, Iruñera, sanfermiñetan. Orduko iruinsemek bila joaten zitzaizkion Arrotxepera tren geltokira, eta autoa inguratzen zutela igotzen zen irira: ondoren, Gaztelu Enparantzan “La Perla” oteleko balkoitik jotzen zuen bibolina, erriko jende guztiak doain aditu zezaten.

La Coruñan zazpi urterekin eskaini zuen lendabiziko kontzertua eta Santiagon ikasi zuen Coutier bibolinistarekin. Gero, 1856. urtean Pariseko Kontserbatorioan ikasi zuen.

Aipamen andiak lortu zituen asieratik Europa guztian zear. Eman zituen kontzertuak Victoria Eugenia erregina, Napoleon II eta Isabel II erreginarendako izan ziren. Bein, Londresen kontzertu batean izugarrizko arrakasta lortu zuen Pablok. Orren adierazle, orkestrako bertze biolin joleek beren bibolinen arkoak autsi zituzten eskuekin. Alako jokaerarekin beraien eta bere maisuaren arteko alde argi utzi nahi izan zuten. Pasadizo au irudi edo koadro batean margoturik dago, gaur egun Iruñeko Udalean aurki dezakeguna.


Garaiko egunkarietan bein baino geiagotan aren kontzertuak gorai patzen zituzten, geienak burgesiarendako antolatutak izaten ziren. Orduko musika autore obenetarikoak, ala nola, Lalo, Saint-Saëns, eta Bruch, Pablo Sarasaterentzat zenbait partitura idatzi zituzten. Orain, eun urte geroago, Sarasate ezaguna jarraitzen du izaten mundu guztian zear, eta bere obrak "Aires bohemios", "Danzas españolas" eta "Capricho Vasco" eredu dira bibolinaren arloan. Furwänglerek eta Toscaninik bere obrak interpretatu zituzten, baina gaur egun ere oraindik ez dakigu ongi norainokoa izan zen aren anditasuna. Luis G. Ibernari idatzleak "Pablo Sarasate. Europako bibolina" izenpetu zuen bere lana. Ara Mailikian biolinistak bere ustez Sarasateren

meritorik andiena zein den azaldu zuen, eta alaxe zion; "musika klasikoa errikoia egitea, egun bear genuena. Musikak olako jende anitz bear luke eta aien artean Sarasate izan zen, antzezleri arrigarri bat". Zoritxarrez, ezin ditugu orduko grabazio oriek gaur egun aditu, baina jakina denez, oso herrikoia zen ark egindako musika. Gainera, egungo biolinistika estetika teknikaren aitzindaria dela dio Carl Fleschek.

XIX. mende bukaera eta XX. mendetako asierako urteetan emengo musika atzerrian zabaldu zuen Pablok. Batetik, bere nortasuna jenio batena zen, eta ala aipatu izan zuten Tolstoi eta Hesse. Bestetik, askotan, Sarasateren irudia zineman azaldu izan da. Aipatzekoa da bein baino geiagotan agertu den "Zigeunerweisen" (Aize bohemioak) japoniar filmea, Seijun Suzukik zuzendutakoa. Gaur egun ere, japoniar biolin aldizkari batek darama aren izena.

Sarasatek Santa Cecilia orkestra sortu zuen Iruñean eta bere testamentuan utzitako diruarekin ainbat musika ekin-tza aurrera eramaten lagundu zituen. Onez gain, beartsuak lagundu zituen. "Beretxitos" ilerrian ilobiraturik dago Pablo. Bien bitartean Sarasateren bibolina negarrez dago Iruñeko sanfermiñetan.

Xole Erbiti.



Euskalerria`ren egia: III menendez Pidal`ek ez diñoana

Erromatarren menperatzaille ekintzan sortu ziran izkuntz barrien ondorioak:

ERDI UGARTE ONEITAN - Erromatarren sarraldia: Erromatar agintariak, Kartaji- nes`ak guda-bidez eze- reztuteko naian, K.a. 218`n urtean Geneo eta Publio Kornelio Eszipion anaiak bialdu ebezan Tarragona`ra (Tarraco), euren neguko gudalategia Tarrako izenagaz bertan ezarrita.

Zeza`rek gero, Biktriz (Victrix)`en idazpuruaz kolonia lez artuta eta leen orko aldeko uri-nausitasun lez izen- datuta (Hispania-Citerior), Tarrakonense`ko izenagaz geratuko zan, beren nausitasuna sendotzeko alegiñean.

Eta nai-ta gero Europa`ko Galia-bidetik ekin, Erdi-Ugarte onen Iparralde ortatik asi ziran sar- tzen eta euren nausitasuna odolkerizko guda-bi- dez ezartzen. Bide batez, Ennio`tar Kinto (K.a. 239-169) Afro`tar Publio Terenzio (K.a.185-159) eta Luzilio`tar Kaio`k (K.a. 160-104 ?), Latiña erinduten (refinar, depurar) joan zirala, Mundu guzti- ko erri-gizarteak jendekuntzazko izkuntza-lez on-artu dagian.

Euskal eta Keltiar izkuntzan bizi ziran leiñuakaz, menperatzaille- tasunezko ekintza orren bidez, Europa guztian eta erdi-ugar- te oneitan batez-be, latin-kume (romance) ugari ta erri ezberdiñak sortu ziran.

Gure Euskera`ren izkuntzazko leiñuak auzo- tutako laterritasunean bizi ziran artean adibidez: "Iparraldean eta Garona-ibai ta Auñamendien (piri- neos) bitartean Gaskoi`a", "Rodano ibaia, Lurrarteko- itsasoa ta Italia bitartean Probenzala", "Kataluña eta Balenzia`n Katalana", "Ebro-ibai`aren ur-bazterretik eta Aragoi`aren Iparraldean Nafar-Aragoi`a", "Kantabria ta Burgos bitartean Gaztelera", "Asturias-Leon bitartean Bable", eta Gallego-Portugesas, Galizia ta Portugal keltiar`en artean".

Izkelki-gaizto orreik latin-kume biurtu arte (romance) gizaldi asko igaro ziran eta gero be ez gitxiago bene- tako edo zentzunezko mintzoera bat biurtzeko.



Danetatik, Gaztelera izan zan zoriotsuena, IIIⁿ Santxo Aundiak 1.035^{ean} bere antolabidezko lurraldeak banandu ebazanean lau semeen artean asi-ta.

Gaztelako erregetza sortu zanean Uri nagusia Burgos^{en} ezarrita, 1.085^{an} Toledo Mauritarren^{gandik} artuta eta 1.230^{ean} Leon-Asturias^{eko} erregetzagaz bat eginda, sendotzen joan zalako.

Xⁿ Alfonso Jakintsuak (1.221-1.284 eta errege 1.252-1.284) emon eutson bultzaka da aundiena. Leen, bere kantzillergo^{ko} jaurkintzan Latiña Gaztelera^{zko} latin-kumeagaitik aldatu ebalako. Bigarren, jakitezko-trebetasunak eta ele-ederrak berotu edo bizkortu ebazanean arabiar eta ebraitar jakintzuak babestu ebazalako. Eta irugarren, Idazti-Deuna, Koran, Talmud, Kalila e Dimna Arabiar-kondairak eta abar asko gaztelera^{tu} ebazalako.

Eta Erdi-Ugarte onetan geien, Godo^{en} asmakuntzazko lurraldeak bir-artzera asi ziranetik, gaztelera^{zko} zabalkuntz aundia artzen asi zalako.

Bai, 1.474^{an} Gaztela ta Aragoi ezkontza^{ren} bidez alkartu ziranean, ortik aurrera Amerika ta Filipinas^{era} be zabaldu zalako.

Gaurko Erromatar, Godo eta Katoliko^{en} asmakuntzazko aundikerien naidunak, zentzun aundiko belarrietan miñ aundiak egiten dabezan berba oneik esaten dabez: Gaztelera “España^{ko} Aberria^{ren} izkuntza biurtu zala”.

Guzur aundia dana edozein lekutatik begituta be, gaurko egunean eurak-be ez dakielako España^{ko} itzak zer esan gura dauan, gure Euskeraren izkuntzan espaina^{ren} esan guretik aurrera.

Eta guzurta^{pen} (refutaciòn) au egiteko, Menendez ta Pidal^{tar} Ramon^{ek} (1.869^{an} A-Koruñaⁿ jaio eta 1.968^{an} Madrill^{en} il zana) bere liburuan “España y su Historia” I^{go} atalean 80 orrialdeko zenbakian “Los nacionalismos” eta 81^{ean} argitu egiten dauan “La cuestiòn lingüística” idatzitakoari aurrera



urten da, guzurtagarrian ipiniko dogu.

Berak, idatzitako lan guzti oneitan asieratik “España^{ren}” itzari emoten dautso leentasun edo nagusitasun guztia, erdi-ugarte oneitan Homo-Sapiens^{etik} gaur arte olan izan-balitz bezala, Menperatzaille asma-kizunezko agindu-naiari, jendekuntzaren aztura-bideko jakintzaren trebetasunean lortu diran aurrerakuntza guztiak eurenak izan balitz bezala.

Ez da konturatzen edo ez dau kontuan artzen: “JAINKOA^k ipinitako Bereztasunaren LEGE-bidetik argitu bear direla gure erri-gizarteen arrazoizko edestiak.

Olan ez-balitz, berea dan jakituri aundiagaz, erri-gizarteak, gaur gagozan-lez, bide-lokatz baten ongaizkatuta edo berezko-egi ta guzurrezko arrazoiak batera dirala bide baten naastuta izten dabezelako.

Ez da Menperatzailletasunezko maltzurkeri bidez egin dan beartutako batzangotasun ori..., gaur maltzurkerizko España^{ren} egoerak aurkeztu egiten gaituena ?.

Nortasunezko erriak, erri-zentzunezkoak bezala itzarmen bidez ondoratu edo urbildu egiten dira, danon bizi-arazoak eramankorrek egiteko.

Ez oldoztu edo gogoan izan, indarke-riz, nortasunezkoak diran eta ez diranak zorro baten sartuta... eta naste-borraste orren bata-bestien zapalkuntzaren bidez konponketarik urtengo danik. Ortik, borroka-latzak baiño ez diralako agertzen.

Demokrazia^k, arrazoizko-orde bidez, bakotzari berea emotea eskatzen dau, danok JAINKOA^{ren} argitasuna ikusi bear dogulako. Eta zorro orren barrutik zelako argitasunera agertu ?.

Ikusi daigun “La cuestiòn lingüística”ren azalkuntzan, zer esaten dauan Menendez ta Pidal^{tar} Erramon^{ek}:

“Modernamente en los movimientos secesionistas se concede la mayor importancia a la diversidad de la lengua. Mientras la cultura tiende cada vez más a la uniformidad universal, se valoriza más la individualidad

de múltiples culturas menores, representadas por lenguas cuyo desarrollo histórico no puede decirse completo, en comparación con las grandes lenguas culturales. El vivo interés científico y literario despertado modernamente hacia las lenguas menos estudiadas antes, sirve de apoyo al interés político por las “pequeñas naciones”, y éste no aprecia el diferente papel que representan las grandes lenguas hegemónicas y las que no tienen una sustantividad tan firme, por no tener un cultivo tan intenso y original como las otras, ni tan continuado y sin vacíos extensos. El flamenco, el estonio, el irlandés, el catalán... vienen a tomar un valor representativo de aspiraciones políticas; lenguas que nunca fueron de cultura, como el vasco, hacen desesperados esfuerzos por querer serlo y bastarse a sí mismas. En suma, se tiende a igualar en la consideración histórica las grandes lenguas de la cultura con las pequeñas y hasta con las antes no existentes como tales”.

Urrengo lerroak irakurrita, España`ri baiezko erantzun antzeko bat egiten dautso: “A propósito debemos desde luego notar, respecto a España, que ni el mayor individualismo ibérico produjo mayor diversidad de lenguas, ni esta diversidad obró como determinante en las disgregaciones históricas que hayamos de recordar”.

“El reino de Navarra, desde su comienzo en el siglo X, usó promiscuamente dos lenguas habladas, el vasco y el dialecto navarro, afin al castellano, y como lengua escrita sólo usó el latín y el dialecto románico, pues el vasco no comenzó a escribirse algo sino en el siglo XVI”.

“Lo mismo el reino de Aragón, desde su principio en el siglo XI, fue bilingüe por su condado de Ribagorza, cuya mitad oriental habla catalán, y el bilingüismo del reino se afirmó cuando se le unió en el siglo XII el

gran condado de Barcelona, el cual desde entonces dejó de llevar vida aislada, formando un estado único con Aragón”.

“Así, pues, durante los muchos siglos en que la fuerza centrífuga del localismo estuvo en su auge, pues lo exigía el desarrollo de la vida nacional, un bilingüismo constitutivo, inextricable (difícil de desenredar, muy intrincado y confuso) se extiende por todas partes”.

Pidal`ek bere España`ren elburutasunean ez dabena esaten:

a) Erromatarren menperatzailletasuneko ta odolkerizko ekintza areitan, zelako izkuntzaren aurka sortu ziran izkelki-barrigarri aiek, ez ziranak latin-kume egin berandu arte eta zer sortu zan IV`n. mendean Nizea`ko Eleiz-Batzar-Nagusitik aurrera.

b) Erdi-Ugarte oneitan, VIII ta IX`garren mendeetan sortu ziran erregetzak, zelako antolamenduaren baldintzetan sort-arazi ziran eta beartuta noren aolkularitzapean.

d) Orduko erregeen artean, zelan sartu ziran errege batzukbeartasunezkobatzagotasunaren eritzi bidean eta eritzi orreik zelan lotu eben euren maltzur-elburua izkuntz ta Nortasunetan 1.789`ko Frantzia`ko iraultzaren ostetik.

e) Gizarteko siko-genetikaren sortzen dan antzera, bardiñ sortzen da toki-izenaren agerkietan, bereztasunaren lege bardiñeko baldintzatan oñarrituta gagozelako.

f) Ortik aurrera eta gaur arte, zelako gudaalegiñak egin dira batzangotasuneko Menperatzaille eritzi orreik garaipendu daitezana.

g) Edesti orren ondorio bidez, zelako arazoetan bizi-gara gaur, gure erri-gizartetan.

Atutxa`tar Paul


Zornotza`n 2.008`An epailla`ren 25`ean



Eguna taxuz erabili

“Ondasunik bikañena denbora danez, galbide andiena denbora galtzea da (Franklin).

Bernabe Tierno



Denbora tentuz erabiliz eraginkortasuna lortzen da.

Ondasun baliotsuena eta lorpen guztien bidea denbora da, edozein adin eta mallakoek goizetik eta egun osorako jasotzen daben oparirik onena.

Gaurko eguna nirea da eta ez beste inorenena. Denbora bardin luzatzen jako beartsu ala aberatsari, argitsu ala ergetari, errege edo jopuari, eta egun batean denbora galdu badegu, alegiñaren gañetik inork ez deusku hurrengo eguna mamitsu burutzeko aukerarik lapurtu aal izango.

Egunean 24 ordu baño geiago galdu ezina denboraren alderdi interesgarri bat da, zeren naita be ezin dogulako gerokoa oraingoz galdutzat emon, oraindik ez baita eskukoa.

Oso garrantzitsua da bizitzak egunoro oparitutako 24 orduak zuzen eta eraginkor erabiltzen laster ikastea, norbere garapen eta bizi-esanairako giltzarri dalako, nola ere oiko jardunean zoriontsu izateko.

Denbora bideratzeko danok moduren bat erabiltzen dogu.

Axolagabeak ez dau ordutegirik ez lan finkorik, noraezean dabil.

Ez dot zorroztuko orrelango bizimoduan

dabilena, baina arrakasta lortzeko ez da biderik gomendagarriena.

Beste puntakoa da lanari kateatuta egon eta dana gutxi iruditzen jakona.

Eginkizun askori, baita etxeko lanetan, lotzen dana lanerako besterik ez da bizi.

Jarrera orrek, goiz ala berandu, osasun kalte larriak dakartza, alan oinarritzko balioen desoreka, edo familiako bizitza alboratzea, senar-emazte ala guraso eta seme-alaben arteko elkarrizketaren galera.

Oso agirikoa da orrela dabilena norbere eta familiaren porrota lantzen ari dala eta 24 ordu lanean arituz dirua pilatu naiak ondorio tamalgarriak dakartsozala.

Denbora tentuz eta eraginkor erabiltzeko ezaugarri auei begiratu:

-Denbora taxuz erabiltzea batez be ordu gitxitan egindakoa probetxugarri izatean datza.

Gakoa eraginkortasuna geitzean dago, lorpen onak eskuratzeko oztopoak baztartuz, orretarako oinarritzko baliabide eta prestutasunak erabiliz:

Elburuak eta leentasunak finkatu, plangintza egokia bidez.

Lana ongi bideratu, emankizunak ongi eskuratuz eta inguruko pertsona argitsu

eta eraginkorrak eman dagiguken kontutan izanez.

Denbora taxuz erabili, eraginkortasuna lortzeko Paretoaren arau ezagunaz -80/20koa-baliatuz.

Denboraren %ko 80an bakarrik %ko 20aren lorpena badogu, zerbait oker dago plangintzan, motibazioan, edo lana bideratzean.

Bestalde, %ko 20 baten denbora eta aalegiñaz %ko 80aren lorpena eskuratzen badogu, eraginkortasunaren arauak ongi erabiltzen ari gara.

Funtsean egiten ari garenaz eta lortzen dogunaz erne egotea da gakoa, "A" egiteak "B" bezainbeste denbora badarama, baña denbora eta aalegin berberaz "B" egiñez hiru bider geiagoko lorpenak eskuratzen baditugu, egoki eta zuurrena "A"ri emandako denboratik artu eta "B" egiten erabiltzea izango da.

Denbora taxuz erabiltzearen beste ezaugarria bizitzaren une guztietarako astirik izatea da, ala nola ezertan aritzeko astialdia, irakurtzeko, familia-kideekin egoteko, eta beste.

(Bernabe Tierno psikopedagogoak artikulu batean idatzia)

Agustin Arrien

*Patxi Otamendik euskeratua.

Negar zotinka

-1-

Negar zotinka dago
Jesus Umetxua,
Amari agertuaz
egarri mintsua.

-Tori, neure laztana,
ur bularrekoa,
asegarri jatzuna,
ta goxu-goxua,
orañarteko odola,
esne biurtua.

-2-

Gaur be,jarraituten dau,
Josutxuk negarrez,
aur txikien munduan,
partaide izanez.

Milloika,gose-egarriz,
karraxi ta miñez,
argaltzen ari dira,
gau eta egunez,
loratxuek ur barik,
legortzen diran lez.

-3-

Mai andi-zabal baten
antza dau munduak,
eskeñiaz ugari,
janari ederrak.

Bizidunentzat dira,
egoki egiñak:
danontzat dago deia,
egun ta lekuak,
baña buru izatea,
dauka gizakiak.

-4-

Buru izateak dakar,
gizarte nastea:
norberena gordeta,
bestena jatea.

Orrelangoa eztoгу,
Josutxu maitea:
danen nausi izanez,
egin da xumea,
olantxe erakutsiaz
egizko bakea.

-5-

Urteak joan ala,
Jesus da anditzen,
maite ba ditu danak,
txikitxuak geien.

Nunbaiten erreinuaz
zala berba egiten,
ume pilla galanta,
asi zan laztantzen,
erreinukide egiñaz
erreinu barrien.

-6-

Erreinu barrien da
maitasuna nausi,
alkarri lagundu ta
zorionez bizi.

Jesús Jauna izan ziñan
Sortzaille lenbizi,
gero gure artean
maitatuaz bizi.
Zurekin egon nai dot
orain eta beti.

2.008 gabon zar 2009 urte barri

Gabon zarretan nabil
uztiz xamurtuta,
Jaungoikoaren laguntza
ugaria ikusita.

Larogei ta sei urte
daukodaz beteta,
t'arbola zar antzera
nago zarkituta.

Urte Barri ona daidan,
Jaunak lagunduta.



Otarre

Zumitzezko otarre,
urrezkoa dirudi
apainki egina;
kulunka goxoetan
biotz batek darabil...
esku zuri piña.

Oial zuri artean
ain izaki txikia
lo gozotan dago;
ez egizu esnatu
izarretan izar da,
bera ederrago.

Lo luze, lo ezti...
aingeru argia
dizdiz aurpegian;
bakea dau barnean,
erru bako egona
oialen artean.

Paulin

olerkia



Biraka

Leen orduanba-doaz
argi izpietatin biurrika
ain da ezereza;
bizi eskubiderik
gaisoak ba ete dau
uskeri gisara...!!

Izaki barria da:
adimen - borondatez
ta gizon jantzia;
azurrak bizia nai,
baiña ezpanian dago
bere arnasia.


Manteltxoan artean,
benetan ikusgarri
kilo ta laurenez;
txoritxua dirudi
aizeak eroan leiken
egada bizkorrez.

Paulin

olerkia

Euskaldun barrientzat

Ikkasten



Nundik joango da gizona, bere arrebarengana



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
 kalean (auzoan)..... zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
 an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

1,20 euro

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²